

JOSÉ JUSTO de SALCEDO y ARAUCO

1753-1825

Salcedo almirantea ez zen Trafalgarren egon, baina 1805ean Cartagenako Flotaren agintean egin zuena erabakigarria suerta izan zitekeen batailaren bukaera eraldatzeko. Portugaleten (Bizkaia) jaio zen eta Armadan hasi zen marina-zain gisa. Luis de Cordova almiranteak eta Orbilliers kondeak gidatzen zuten Frantziako eta Espainiako Eskuadra Bateratuko San Jose ontzian egin zuen lehenengo gerra-liskarra Mantxako ubidean Britainiako flota setiatzen, 1779an. Geroago Gibraltarko setioan egon zen eta *Peggi* balandra ingelesa harrapatu zuen 1781ean. Orduetik aurrera lehenbizi, Algeriako kanpainan eta geroago Mediterraneo mendebaldeko kosta defendatzen aritu zen. Frantziaren aurkako lehenengo koalizioaren garaian Langara almirantearen zerbitzura egon zen 1795a arte, Ignacio Maria Alavarekin batera. Era berean, 1797an, Mazarredoren zerbitzura, Cadizeko defentsan parte hartu zuen, arrisku handiak hartuz Nelson almiranteari aurre eginez. Ingelesek ezartzen zituzten blokeoak hausteko paregabeko gaitasuna erakutsiz 1799a eta 1801a bitartean Penintsularen eta Mundu Berriaren arteko hainbat itsas-bidaia egin zituen. Besteak beste, garrantzi handia izan zuten *Monarca* ontziaren agintean nahiz *Paz* eta *Mercedes* fragaten agintean egin zituenak. 1804an Ingalaterraren aurka piztu berri zen gerraren ondorioz Cartagenako Flotaren agintea eskuratu zuen. Eskuadra Bateratua Antilletatik bueltan Cadizera heldu zenean Salcedoren zerbitzura zeuden 8 ontzik eta hainbat fragatak Nelson almirantearen eskuadra erasotzeko aukera hainbat aldiz aztertu zen. Aukera horren arabera eraso Nelsonen atzealdean burutu beharko zen 1805eko urriko egunetan. Baina Godoy ministroaren zalantzen, zein Villeneuve almirantearen bat-bateko erabakiaren ondorioz, Britainia Handiko Armada Cartagena eta Cadiz bitartean bi flotaren artean harrapatzeko aukera bertan behera geratu zen.. Trafalgargo porrotaren ondoren 1808an Frantziaren aurkako matxinadan parte hartu zuen Valentzia hiria defendatuz Suchet (Moncey) mariskalaren aurrean. Hala ere; Mazarredoren aholkuei jarraituz Jose Bonaparteren zerbitzura egon zen. 1814 eta 1819 bitartean atzerrian egon zen Frantzian, eta itzultzean Fernando VII.ak preso hartu zuen. 1825ean Cadizeko San Fernandon hil zen bere kargu eta meritu guztiak kenduta.

El almirante Salcedo no estuvo en Trafalgar, pero su actuación al mando de la Flota de Cartagena durante 1805 pudo haber sido decisiva para un desenlace distinto. Vio la luz en Portugalete (Vizcaya), iniciándose como guardia-marina en la Armada. Su primer combate lo realizó sobre el navío *San José* en la Escuadra Combinada hispano-francesa del almirante Luis de Córdova y del conde de Orbilliers durante 1779, participando en el bloqueo contra la Flota británica del Canal de la Mancha. Se halló luego durante 1781 en el asedio a Gibraltar, logrando la captura de la balandra inglesa *Peggi*. Desde entonces y al mando del navío *Guerrero* lo encontramos primero en la campaña argelina y más tarde en la defensa costera del Mediterráneo occidental. A lo largo de la Primera Coalición contra Francia se halló también a las órdenes del almirante Lángara hasta 1795, junto al propio Ignacio María de Álava. Del mismo modo participó con gran riesgo en la defensa de Cádiz frente a Nelson en 1797, bajo las órdenes de Mazarredo. Demostrando su capacidad para cruzar el Atlántico frente a los bloqueos ingleses, realizó entre 1799 y 1801 varios viajes entre la Península y el Nuevo Mundo, destacándose sus singladuras al mando del navío *Monarca* y las fragatas *Paz* y *Mercedes*. A raíz de la nueva declaración de guerra de finales de 1804 contra Inglaterra se le confirió el mando de la Flota de Cartagena. Tras el regreso de la Combinada procedente de las Antillas y el posterior fondeo en Cádiz, se barajó en diversas ocasiones la posibilidad de que los 8 navíos bajo su mando y varias fragatas atacasen a la escuadra de Nelson por la retaguardia en los días de octubre de 1805. Las dudas del ministro Godoy y la precipitación del almirante Villeneuve obstruyeron esta acción mixta que habría pinzado desde Cádiz y desde Cartagena a la Armada británica. Después el desastre de Trafalgar se unió en 1808 al levantamiento contra la invasión francesa, defendiendo la ciudad de Valencia frente a las tropas del mariscal Moncey. No obstante, y posiblemente siguiendo los consejos de Mazarredo, entró al servicio de José I Bonaparte en 1810 como afrancesado. Entre 1814 y hasta 1819 se mantuvo exiliado en Francia, siendo luego hecho prisionero por Fernando VII a su regreso. Falleció durante 1825 en San Fernando de Cádiz, apartado de su rango y sus méritos.

Admiral Salcedo was not present at Trafalgar, but his actions in command of the Cartagena Squadron in 1805 may have been decisive to bring about a different outcome. He was born in Portugalete (Vizcaya), and joined the Navy as a midshipman. His first battle was fought on board the *San José* with the Combined Spanish-French Fleet under Admiral Luis de Córdova and Earl Orbilliers in 1779, when blockading the British Fleet in the English Channel. Later, in 1781, he took part in the attack on Gibraltar, where he captured the English sloop, *Peggi*. Since then and in command of the *Guerrero*, we find him in the Algerian campaign and, later, defending the Western Mediterranean coastline. Throughout the First Coalition against France, he was under the order of Admiral Lángara until 1795, together with Ignacio María de Álava. He also took part in the defence of Cadiz against Nelson in 1797, under to orders of Mazarredo. Proving his skill in crossing the Atlantic in spite of the English blockade, he made several voyages between the Peninsula and the New World between 1799 and 1801, especially when he commanded the ship *Monarca* and the frigates *Paz* and *Mercedes*. When war was declared against England once again in 1804, he was ordered to take command of the Cartagena Squadron. After the return of the Combined Fleet to Cadiz from the West Indies, the possibility was discussed on several occasions of the 8 ships under his command together with several frigates attacking Nelson's fleet from behind in October 1805. Godoy's doubts and Admiral Villeneuve's hurry cancelled this action which would have placed the British Fleet in a pincer movement by the ships in Cadiz and those from Cartagena. After the disaster at Trafalgar, he joined the rebellion against the French in 1808 and defended the city of Valencia from Field Marshal Suchet's (Moncey) troops. However, and possibly following advice from Mazarredo, he joined Joseph I Bonaparte's side in 1810. Between 1814 and 1819 he lived in exile in France and was captured by Ferdinand VII when he returned. He died in 1825 at San Fernando de Cádiz, stripped of his rank and merits.

JOSE JUSTO de SALCEDO y ARAUCO